

1907

Euskal-itz jostaldien Batzarrea

(Euskal-festen XXVI-garren urtea)

EUSKAL-ERRIA



Berrogei'ta amar pesetako sari bat eta bitezarra Elgoibar-en irabazitako moldaera

Gure Ama ederra
orida munduan,
zeñetan Jaungoikoak
gu egiñ ginduan;
batzuek urrutian,
besteak onduan,
bere semeak gabiltz
aldegun moduan.

Ama maitagarria
eta doatsua,
zeñaren itzkuntzada
gutziz gozatsua,

gugatik arkitzenda
naiko beartsua,
maite ez degulako
negarrez gaisua.

—

Seme ezker gaiztoko
asko dauzka Amak,
ber-bera salduzkeko
trebe diradenak:
onen itzkuntz gozoa
maite ez dutenak
ematen diozkate
orrelako penak.

—

Euskeraz aztueta
erderaz ikasi,
gazteria naikoa
onetan da asi;
orregatik naidegu
guk adierazi
ez dutela orrekiñ
ezer irabazi.

—

Emendik zer datorren
ez dute pentsatzen,
lengo oitura onak
ari dira galtzen,
itzkunde deabruak
kanpotikan sartzen
eta Euskal-Erria
gogotikan chartzen.

—

Alkar illtzeko griña
eta pantasia,

arrotasuna sendo,
erruz erausia,
eta gaurko itzkunde
guztiz ichusia,
nundik etorridiran
dagoikusia.

Gure aurretikako
euskaldun nobleak,
Amari jarraitzeko
gu baño obeak,
alkarri lagunduaz
aberats pobreak,
gure aldean ziran
zeruko loreak.

Eta jakindean,
emengo lurrean,
gizon abillak ziran
guztien aurrean:
guretzat izen opa
eman bearrean,
asko sayatu ziran
busti-legorrean.

Ama onen izkuntzak
daukazki berekiñ
bertute eder asko
maitatasunakiñ:
azi ausen zabaltzen,
sayamenarekiñ,
gogoz eta gozaro
bear zayo ekiñ.

Au beste itzkuntzakin
zutenean nastu,
euskerazko legeak
zitzaizkigun aztu;
ostera berritzeaz
bear gera poztu,
ez bada anai onak
lan orretan oztu.

—

Orretarako aurrez
ongi begiratu
zer galdu dezuten ta
zer dezuten artu:
ez geyago zeronen
Amarik beartu,
beraren mantupean
bereala sartu,

—

Emenchen daukazute
besoak zabalik
iges egindakoak
beregandu nairik;
ez dala noski berandu
batere oraindik
biur naibadezute
utzegitez gaindik.

—

Euskaldunak, lenbizi,
ikasi euskera,
ta gero, bear bada,
miñtzatu bestera;
baño jarraitu arri,
ez aztu oster,

eta saya aurrai
au erakustera,

Bera da itzkuntzetan
seguru zarrena,
Españin itzegiña
gizonak aurrena;
eztitsuo biziro
eta ederrena,
nayerak azaltzeko
ere azkarrena.

Asko zorionean
oartudirade
charra dala euskaldun
euskaririk gabe;
eta orregatikan,
aundizkiak ere,
egiten asi dira
itzkuntz onen jabe.

Amaren pozerako
mundu zabalean,
oraindik asko gaude
euskeranzalean:
goratu beardegu
au egiñalean
sartutzen geradela
«Euskal-Esnalean»

Emengo buruzaita
Fianagusiak
lan ederrak dituzte
onetan asiak:

naitasun ona dute,
Jaunari graziak,
euskeraz jantzitzeko
gure probintziak.

Guztiok laguntzera
gaude beartuak,
zutitu albagintza
gauza zeartuak:
azal ditzagun bada
nayera artuak,
jaye giñanetikan
barrenen sartuak.

Ea bada maiteak,
iriki begiak,
esaten zaitzutenak
dirade egiak:
garbi gorde ditzagun
geronen legiak
utzitzen ditugula
erbestekeriak.

Ezgaitezela izan
ezker gabekoak,
baizikan seme leyal.
Amazatekoak:
chukatu ditzayogun
berari malkoak,
naigaberik asko du
lengoa gajoak.

JOSÉ IGNACIO GARMENDIA.

